

FR. BARTOLOMEREN IDAZLANAK ETA PERTSONALITATEA

I. EUSKARAZKO IDAZLANAK

I. FRAI BARTOLOMEK ARGITARATUTAKO IDAZLANAK

Lau dira Frai Bartolomek argitaratutako euskal liburuak, *idazle klasiko* izena merezi izaterainoko ospea eman diotenak. Guk argitaratu ziren ordenan aztertuko ditugu; beharbada, bat etorriko dira idatzi ziren ordena eta argitaratu zirenekoa; *Icasiquizunac* saileko lehenengo liburukia eta *Euscal-errijetaco olgueeta* garai berean edo bateratsu idatziak direla badirudi ere, hau da, 1806-1807. urteetan gutxi gorabehera. Baina ez ditugu liburutan argitaratutako haren idazkiak soilik aintzat hartuko, baita disketetan egindako argitalpenak eta, argitaratzeko asmoz prestatua izan arren, horretarako zoririk izan ez zuen lan handi bat ere...

A) *Euscal-errijetaco olgueeta...*:

Hauxe da Frai Bartolomereren libururik aipatuena eta ezagunena, eta haren lan guztietarik argitalpenik gehien izan dituen, agian garrantzitsuena izan ez arren... Egileak 1816. urtean argitaratu zuen.

**EUSCAL - ERRIJETACO
OLGUEETA, TA DANTZEN**

NEURRIZCO-GATZ-OLINDUEA

AITA PRAI BARTOLOME

SANTA TERESA,

MARQUINACO CARMEN

ORTOZECO

PREDICADORIAC PRESTAUBA

IRUÑEAN. JOAQUIN DOMINGO

**Nausijaren, eta Gaztiaren
Liburuguillaan.**

**Biar dan ondo izatiagaz,
1816 urtian.**

"Euscal-errijetaco / olgueeta, ta dantzeen / neurrizco-gatz-ozpinduba / Aita Prai Bartolome / Santa Teresa, / Marquinaco Carmen / Ortozeco / Predicadoriac prestauba. / ——— / Iruñean. Joaquin Domingo / Nausijaren, eta Gaztiaren / Liburuguillaan. / Biar dan ondo izatiagaz. / 1816 urtian.", 208 orr., 13'5 x 0'9 cm (pasta: 14 x 10 cm).

Liburua, "Jesus-Cristo gueure Jaun Curutzian josijari" (3-6.orr.) izeneko eskaintzarekin hasten da; horren ondoren bost orrialde datoz sarrera gisa. Bost kapitulutuan banatua dago liburua: 1) "Olguetiaren gainian". Kapituluak hiru artikulu hartzen ditu (11-26. orr.). 2) Bigarren kapituluak, era berean bi artikulu hartzen dituenak, "Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau" (20-43.orr.) du izenburua. 3) Hirugarren kapituluak aurreko bien ondorioa bezala da, eta "Amajja" izenburua jartzen dio. Euskal Herriko jaiak nola egin ohi ziren azaltzen digu eta liburu santuen eta teologiaren ikuspegitik haien izaera morala aztertzen du; lau artikulutuan banatua dago (43-104.orr.). 4) Laugarren kapituluak honako izenburu hau du: "Erromedijen, Biguiren, ta Saraubeen gainian", eta hiru artikulu ditu (105-132.orr.). 5) Bosgarren eta azken kapituluak da guztietarik luzeena: "Dantzeen pavoreco errazoicak, ta erantzunac"; zortzi artikulu hartzen ditu (133-207.orr.). Eta 208. orrialdea inprimategiko huts batzuk agerian jartzera dator: "Uts-eguiteen ezauberia".

Hala ere, lana jadanik idatzirik eta argitaratzeko prest zegoen 1807. urterako. Nondik dakigun hori? *Icasiquizunac* saile-eder eta originalean, *Euscal-errijetaco olgueeta* liburutxoaren aipamen jakingarri bat aurkitzen dugulako; honela dio: "Au aguinduten deutseezu ceuben umiai piestara, erromedijara, sa-raura, comedijara, edo biguirara aguinduten deutseezun guztian. Gauza onen gañian icutsi dot, cerbait gueijago escribiduta gueure eusqueeran, arguitara etarateco ustiagaz, ta an topaucodavee gueijago, naidaveenac"¹. *Icasiquizunac* saileko es-

¹ MHA, R./2549, BARTOLOME STA. TERESA, *Jangoicuaren legueco leleno...*, 253-254.orr.

kuizkribu honek, letra garbiz idatzia eta dirudienez inprimategirako prestaturik zenak, 1807ko data darama.

B) *Icasiquizunac*

Hiru liburukitan dagoen obra handi hau da Frai Bartolomeren lanik garrantzitsuena. Apaiz gazte zela idatzitako lana da gehien bat, hau da, 35-38 urte zituela, Markinako Karmengo komentuan predikari ofizial zen lehen urteetan egindakoa. Ez ditugu bere eskuz idatziriko eskuizkribuak ezagutzen, baina lehen liburukiaren eskuizkribua bai gordetzen da eta hortik dakigu obra hori bere fase ezberdinetan hainbat aldiz idatzia izan zela: lehenbizi Bartolomek zirriborroa idazten zuen; gero garbian idatziko zuen; horren ondoren besteren bategi idazten zuen letra garbiz inprimategirako; idazketa hau egileak berak osatzen zuen bere eskuz, eta azkenez liburua argitaratzen zen guk ezagutzen dugun eran. Dena dela, bidea luzeago ere izan zitekeen, *Icasiquizunac* saileko lehen liburukian ikus daitekeenez.

I. Liburukia

" + / *Jaungoicoaren / amar aguindubetaco / lelengo bosteen / icasiquizunac, / aita prai Bartolome Santa / Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco / Predicadoriac ateraac. / I. Zatiija / —/ Biar dan ondo izatiagaz. / Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan. / 1816 Urtean.*" X - 278 -32 orr., 18'5 x 12'7 cm (pasta:19 x 13'5 cm).

Lehen liburuki honetaz ari garela, bereiz hitz egin behar dugu argitaratutako liburukiaz eta liburuki honi dagokion Frai Bartolomeren eskuizkribu originalaz, baina lehenago idatzia denaz.

Argitaratutako liburukia mandamentuka sailkatu dago, eta obra osoa "Icasiquizunac" deituriko kapituluka, baina kontuan izan behar da aurkibide orokorreko zenbaketa ez datorrela bat testuaren zenbaketarekin... Eskaintzaren ondoren (*Eusqueera*


✱
JAUNGOICOAREN

AMAR AGUINDUBEETACO

LELENGO BOSTEEN

ICASIQUIZUNAC,
AITAPRAI BARTOLOME SANTA
Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco
Predicadoriac ateraac.

I. ZATIJA



BIAR DAN ONDO IZATIAGAZ.

Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillan.
1816 Urtean.

errijeetaco eleisa-guizonai, III-v.orr.) eta *Iracurliari* (VI-X.orr.), eta sarrerako hiru hitzaldi-sermoiren (1-38.orr.) ondoren, lehenengo mandamentua dator zazpi ikasikizunetan (39-106.orr.); bigarren mandamentua, lau ikasikizunetan (106-150 orr.); hirugarrena, hirutan (151-186 orr.); laugarrena, lautan (186-231 orr.); eta bosgarrena, lau ikasikizunetan (232-278 orr.). Eta liburuari sermoi bat erantsi zaio amaieran orrialde-zenbaketa bereziarekin (*Sermoia gurasuen, ta umeen oneraco*, 1-30 orr.) eta aurkibidea (*Topa-lecuba*, 31-32 orr.), honen orrialdeak eta liburu-ko ikasikizunenak bat ez datozela. Aurkibidean orrialde-zenbaketak jarraitu egiten du; liburuan zehar, ordea, mandamentu bakoitzak bere zenbaketa berezia du batetik hasita, lehenengo mandamentuan izan ezik. Aurkibidearen amaieran, 32. orrialdean bertan, lerro batzuk gehitzen dira liburua hutsak zuzentzeko.

Madriko Historiako Errege-Akademian gordetzen den eskuizkribua (M) (9 / 2549) argitaratutako *Icasiquizunac* I liburukia baino lehenago idatzia da:

“ + / *Jaungoicuaren legueco lelengo bost Aguin- / duben ogue-
ta bost Lecinoe, ta sermoe / bat / Aita pray Bartolome S^{ta} Teresa
Marquinaco / Carmen oinustuco / predicadoriac etaraac. /
Mandamentuben / I. Partia. 1807. urtian*”. ([10] orrialde + 296
orr. + [6 + 14] orrialde.


Eskuizkribua (21'6 x 15'5 cm), hariz josia, eta koloretako paperez azaleztatua da eta goialdean “9 / 2549” katalogo-zenbakia du. Azal honi itsatsirik folio bat dago. Lehenengo folioan antzinako katalogo-zenbakia dago soilik idatzita: “Est. 12 gr. 6^a n^o 370”. Eskuizkribuaren bizkarrean ere “370” jartzen du.

Eskuizkribu hau, beroni dagokion *Icasiquizunac* saileko lehen liburua baino hamar bat urte lehenago idatzia da, eta idazketa bera ere desberdina da, bien arteko alde txikiak oso ugari direlarik... Izenburua pixka bat ezberdina da, sarrerak ezberdinak; sailkapena, ordea, ia berdina da, baina kapitulu bakoitzari *icasiquizuna* deitu beharrean *lecinoia* deritzo eskuizkribuan;

bigarren mandamentuko 4. kapitulua edo *icasiquizuna* ez dator eskuizkribuan; hemen laugarren mandamentuko laugarren *lecinoiaren* ondoren datorren sermoia, argitaratutakoan, liburaren amaieran dator. Liburuan eta eskuizkribuan barrena, Bibliako aipamenak eta gainerako autoreenak pixka bat ezberdinak dira, eta batzuetan gehitu nahiz kendu egiten dira...

Eskuizkribu honetan Frai Bartolomek bere eskuz idatziriko testuak daude: izenburua dakarren orrialdea eta ondorengo sei orrialdeak (eskaintza eta hitzaurrea) oso-osoan bere eskuz idatziak dira; orrialde bakoitzeko idazpuruak ere gehienak autografoak dira, eta baita aurkibideak ere.

Madrileko Historiako Errege-Akademian gordetzen den *Icasiquizunac* liburuki honen eskuizkribua, letra onez idatzia da, eta dirudienez inprimategirako prest-prest zegoen; 1807.eko data du; baina, uste denez, Madrileko Ordenako nagusiei bidalia izan zen aztertzeko edo zentsurarako.



2. Liburukia

" + / *Jaungoicoaren / amar aguindubeetaco / azqueneco bos-teen / icasiquizunac, / aita prai Bartolome Santa / Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco / Predicadoriac ateraac. / II. Zatiija / --- / Biar dan ondo izatiagaz. / Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan. / 1817 Urtean." IV - 301 orr., 18'5 x 12'5 cm (pasta:19 x 13'5 cm).*

Bigarren liburuki hau, zatiketa eta estiloari dagokionez, lehenengoaren bide beretik doa. Sarrerako lau orrialdetan egingdako eskaintzaren ondoren (*Iracurliari*, I-IV.orr.), seigarren mandamentua dakar bederatzi ikasikizunetan (3-95.orr.); zazpi-garren mandamentua sei ikasikizunetan darabil (96-158. orr.), zortzigarrena zazpitan (159-237. orr.) eta bederatzigarren eta hamargarren mandamentuak, biak batera, lautan (238-282. orr.). Amaieran Santa Teresari buruzko sermoi bat eransten dio (*Ama santa Teresa Jesusenaren ondraraco ondo esatia*, 283-298. orr.); eta honen ondoren, aurkibideko hiru orrialde datoz (*Topa-lecuba*, 299-301.orr.); eta azkenengo orrialdean, 301.ean, 21 lerro datoz liburuko hutsak zuzentzeko.

Liburuki hau 18 erreal zela badakigu, Markinako Karmengo liburu batean honela jartzen baitu: "Este libro es de Josef Antonio Mariano de Ansotegui, vecino de la Anteyg^a de Zenarruza, resid^{te} en la villa de Motrico, compró en el convento de los Carmelitas de Marquina, a 18^{re} cada tomo y es el seg^{do}. Año de 1818. Ansotegui²."

3. Liburukia

" + / *Eleisaco zazpi / sacramentuben / icasiquizunac, / aita prai Bartolome / Santa Teresac Marquinaco Carmen / Ortozeco / Prioriac ateraac. / III. Zatiija / --- / Biar dan ondo izatiagaz. / Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan. / 1819 Urtean." VI - 376 orr., 20 x 14 cm (20'7 x 15 cm).*

² Markinako Karmengo biblioteka, 1-M / 43-f.

Hirugarren liburuki hau Frai Bartolomeren sermoi eta hitzal-di kateketikoen jarraipena da. Hemen Elizako zazpi sakramentuen gaia darabil. Gaien banaketa kapitulu edo ikasikizunetan eta estiloa aurreko bi liburukietakoaren antzekoak dira. Baina oraingoan Kalahorrako bere apezpikuari, Atanasio Puyal eta Poveda-ri, egindako eskaintza gaztelaniaz dago (I-VI. orr.) eta 1819ko abuztuaren 13ko data du. Gaietan sartu orduko, sakramentuei buruzko kapitulu bat dakar (3-13.orr.). Bataioko sakramentua zazpi ikasikizunetan dakar (14-84.orr.); sendotzako, ikasikizun bakarrean (84-96.orr.); penitentziako sakramentua zortzitan (96-184.orr.); Eukaristiakoa, zazpitan (184-259.orr.); oliadura, bitan (260-280.orr.); apaizgintzako sakramentua, hirutan (280-310.orr.); eta ezkontzako sakramentua zazpi ikasikizunetan (311-376.orr.). Azkenik, lau orrialde datoz aurkibidearekin (*Topa-lecuba*, 377-380.orr.); eta azken orrialdean, 380.ean, 16 lerro eransten dira liburuaeren hutsak zuzentzeko.

Icasiquizunac liburukien sorrera:

Icasiquizunac liburukien sorrera garai hartako giro sozio-erlijiosoan jarri behar da, katekesi ekintza pil-pil baitzen orduan eta horren nahia ere biziki sentitzen baitzen euskaldunen artean.

Hasierako eragina Trentoko Kontzilioaren erabakitik zetorren batez ere, kristau-ikasbide bat³ egiteko gomendioa eman baitzuen; era berean Eskritura Santuko katedrak sortzeko agintzen zuen; apezpikuei Ebanjelioa predikatzeko zeregina ematen zien edota predikari hautatu eta horretarako gai zirenen bidez⁴ bete zezatela eginkizun hori... Kalahorrako apezpiku batzuek bene-benetan hartu zuten eginkizun hori, eta katekesi arazo horretaz kezkatu, kristau-dotrinak argitaratzeko

³ *El sacrosanto y ecuménico concilio de Trento* (traducido al idioma castellano por Don Ignacio Lopez de Ayala)... Madrid, ¹1785, 567.or.

⁴ *El sacrosanto y ecuménico concilio de Trento*... Madrid, ²1785, 52-57. or

agindua eman zuten... baita euskaraz argitaratzeko ere⁵. Frai Bartolomeren garaian bertan kristau-dotrinek jaiki handia zuten, lehenago ikusi dugunez. Eta berak ere gogotsu esku hartu zuen kristau euskaldunen artean katekesi lana egiten, eta gainera oso arrakastatsu jardun zuen horretan, apezpikuak berak 1818ko urtarrilaren 8an Frai Bartolomeren hitzaldi kateketikoak pulpituetatik⁶ irakurtzeko gomendioa egin baitzuen.

C) *Sermoiak*

Frai Bartolomeren bizitzako jarduera nagusienetarikoa sermolaritza izan zen, eta horretatik, hots, gorde izan diren bere sermoi edo hitzaldietatik egin da entzute handiko historian zehar, euskal idazle gisa batez ere.

Benetan sermolari handia izan zen euskaraz, baina baita gaztelaniaz ere; hala erakusten du ondorengo gertakari honek: behin gizon talde handi bat, 50 edo 60, armak hartzeko eta altxamendurako prest zeudela, hitzaldi sutsu bat eginda, burutik kendu zien asmo hori, bake-bakean etxera joan zirelarik... 1821.eko Gabonetan izan zen, hura Isla-ko Basamortuko (Sestao)⁷ priore zela.

⁵ Honela, adibidez, On Pedro Mansok agindu hau eman zuen 1600.ean: "Y porque es conveniente, que cada Provincia tenga la Doctrina Christiana impresa en lengua paterna; y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcoa, y Alaba: Estatuimos, y ordenamos, que los Señores Obispos, nuestros Sucesores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, según el uso de las dichas Provincias, para que los Curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia: Porque Nos así lo avemos comenzado à hazer en nuestro tiempo; y las que se imprimieren en Vazquence, tengan tambien la Doctrina en Romance. Dase forma de como se han de hazer los Catecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas".

1603, 1616, 1620, 1634, 1698, 1742, 1769. urteetan etab. ere ekintza kateketikoa egoera onean nabari da Bizkaian, euskarazkoa batez ere, Kalahorrako apezpikuen *Ad limina* kontaketatik atera daitekeenez...

⁶ CEA, Logroñon idatzitako gutuna.

⁷ HAKA, E-I-32, 1822-XI-6.

Frai Bartolomek hainbat urtetan izan zuen predikari-ofizioa; Ordena barruan kargu ofiziala zen; hau da, karmeldarren komunitate bakoitzak bere predikari ofiziala izan ohi zuen. Izatez, XIX. mendeko lehen 17 urteak izan ziren, 1817.era arte, urte horretan izan baitzen hautatua Markinako Karmengo priorre. Hala ere, noizbehinka, sermoiak egiten jarraitu zuen, batez ere komentutik kanpo...

Frai Bartolomek egundoko lana egin zuen katekesi arloan eta sermoigintzan, baina guztiotatik berak argitaraturiko liburak baizik ez dira gorde...

Baina gogoan izan behar dugu *Icasiquizunac* saileko hiru liburukiez gain, Frai Bartolomek beste bi liburuki zituela prestatuturik, hau da, *Kredoari* buruzko hitzaldiak, eta batez be beste bat sermoiena⁸; hau 1807.erao prest zeukan.

Hainbeste sermoitatik bi besterik ez dira gorde. Ikasikizunetako lehen bi liburukietan Frai Bartolomek argitaratu zituenak: bata, lehen liburukiaren amaieran 1-30 or. (eskuizkribuan: 239-262. orr.), eta bestea, bigarren liburukiaren 283-298. orr.

Galera handia. Galerarik handienetarikoa inprimatzeko prest zuen sermoien liburukiarena zen... *Icasiquizunac* saileko lehen liburukian datorrena prestatuturik zituen sermoien ale edo lakin bat besterik ez da...

Gorde diren sermoietatik, bata honako hau da: "Sermoa gurasuen, ta umeen oneraco" (*Icasiquisunac*, I. liburuaren amaieran, 1-30.or.), eta bestea: "Ama Santa Teresa Jesusenaren ondrarako ondo esatia" (*Icasiquisunac*, II. liburuaren amaieran, 283-298.or.).

- "**Sermoa gurasuen, ta umeen oneraco**"

30 orrialdeko sermoi hau, argitaratzeko asmotan zen sermoibildumakoen antzeko ale bat dugu...

⁸ MHA, 9/2549, [V^a-V^l].or.

Sermoi hau, garai hartan ohi zenez, Bibliako testu batekin hasten da (latinez dago, euskarazko itzulpenarekin): *Curva cervicem eius...* (Eccl. 30, 12). Lehen atalean seme-alaben heziera onaren beharraz eta horretarako nahitaezko den doktrinaz dihardu, Bibliako aipamenekin eta autore jentil-latindarren lekukotasunekin eta Eskritura Santuaren adierazle bikain batekin (Cornelio a Lapide)... Hurrengo, ohiko Agur Maria dator. Horren ondoren, azalpen luze bat egiten du, heziera ona eman beharraz; haur eta gazteak garai hartu behar direla, haiei ohi-tura onak irakatsiz, seme-alaben eta gurasoen onerako. Azalpena estilo bizi-bizi eta ikusgarrian dago, adibide praktikoa eta zehatzekin ongi lotuz; ironia, berriz, egundoko idarrez erabiltzen daki... Seme-alabeei buruz gurasoei egindako galderei erantzunez doa, bana-banaka: 1. Cer esan deutseezu? 2. Cer eracutsi... 3. Cer agundu...4. Cer parcatu... 5. Cer entzun... 6. Cer icutsi... Azalpena hain bizia da, non ez baita erraz ikara eragin gabe irakurtzea. Gorde izan den eskuizkribu originalean, sermoia, liburuan ez datorren eta sermoiaren laburpen antzera den ahapaldi honekin bukatzen da:

Gurasuac jaquin biar davee,
chit ondo daveela mercedu,
umiac gaisqui azi ezquero,
isilic egon, ta padecidu.

Sermoi honen iturri nagusia, lehenengo partean batez ere, Frai Bartolomek aipatzen duen autorea da: Cornelius a Lapide, *Commentaria in Ecclesiasticum, indicibus necesariis illustrata* (Lugduni, 1732). Lebitarren liburuko lehen 30 txatalen iruzkinetik hartzen du (508-514.or.). Hain zuzen ere orrialde hauetan ditugu Bibliako aipamen batzuek gain, Frai Bartolomek bere testuan aipatzen dituen autoreen lekukotasuna: Platon, Aristoteles, Plutarko, Zizeron etab. Hemendik ateratzen denez, Frai Bartolome Cornelio a Lapide-ren orrialde hauetaz baliatu zen, honen liburu handiak oraïndik Markinako Karmengo bibliotekan gordetzen direlarik.

- "Ama Santa Teresa Jesusenaren ondrarako ondo esatia"

Santa Teresari buruz egindako 16 orrialdeko sermoi honen estilo, egitura eta iturriez aurreko sermoiaz esan dugunaren antzekoa esan beharko genuke.

Sermoi hau, ohi denez, Bibliako testu batekin hasten da (latinezko testua, euskarazko itzulpenarekin): *Mulierem fortem quis inveniet?* (Prov. 31, 10). Sermoi honetan, aipamen guztiak, Cornelio a Lapide-rena⁹ izan ezik, Bibliakoak dira: Itun Zaharrekoak eta San Paulorenak.

Esan dugunez, aurreko sermoien antzeko estiloa du. Edukia: 1. Teresaren pensamentu andijac, altubac, santubac... 2. Haren maitasun-garra, haren egintza handiak, eragozpen guztiak gorabehera: haren handitasuna.

3. Iturriak eta sermoien estiloa (Oratoria).

Karmeldar gazteen ikasketa garaian, argi dago Frai Luis Granadakoa hartzen zela eliz hizlaritzako maisu handientzat. Honela zioten beren-beregi Ordenako Konstituzioek: "curabitque in triennii decursu, quando aptius ipsi videatur, Reticam V.F.Ludovici Granatensis discipulis addiscendam tradere, et explicare"¹⁰.

Eta honi dagokiola, Ikastetxeetako irakaspen-liburuan Konstituzioek diotena gogorarazten da eta Frai Luis Granadakoa maisutzat hartzeko agintzen, haren oratoriako erregelak gidari izanik, honako hau erantsiz: "Oratoriak Gramatika, Filosofia eta Erretorika ditu oinarritzat; hau da, hitzak, sententziak eta apaindura. Arteen ikasketa garaian ez da gutxi izango oratoriaren atal hauek teoriari ongi ikastea, gero bere garaian praktikara eraman ahal izateko"¹¹.

⁹ *Commentaria in Proverbia Salomonis, indicibus necessariis illustrata* (Lugduni, 1732), 684-685. or.

¹⁰ *Constitutiones...*, 129-130. or.

¹¹ *Instrucción de los colegios...*, 44. or.

Markinako Karmengo bibliotekan, Frai Luis Granadakoaren idazlanen argitalpen batzuez gain, badira Frai Bartolomek eza-gutu eta erabili beharko zituen beste batzuk ere: *Los seis libros dela rhetorica eclesiastica, escritos en latin por el V.P.M.Fr. Luis de Granada, vertidos en español, y dados a luz de orden, y a costa del ilustrissimo señor obispo de Barcelona, para instruccion de sus feligreses: con destino del producto al socorro de su Seminario Episcopal* (Barcelona, 1770)¹². Areago oraindik: Frai Luis Granadakoaren latinezko sermoien liburukietariko batean, dirudienez 1581.eko argitalpenean (izenburua duen orria kendurik du), Frai Bartolomek "Carmen de Marquina" idatzi zuen¹³ bere eskuz.

Egia esan, argi eta garbi ikus daiteke Frai Bartolomereren sermoietan ondo baino hobeto ematen dituela Frai Luis Granadakoak markatzen dituen urratsak, eta karmeldarrak oratoriako lau bertuteak batez ere betetzen dituela: esaldien gramatikazko erabilera zuzena, argitasuna, apaindura eta metafora nahiz alegorien erabilera, profetek egiten zuten¹⁴.

2. ARGITALPENEN ZERRENDA

Frai Bartolome bera bizi zela egindako argitalpenez landa, azken hamarkadetan piztu da, idazle gisa, harekiko estimua. Egia esan, interes hau bereziki euskararen edo literaturaren ikuspegitik sortua da, hain zuzen ere Frai Bartolome euskal literaturaren klasikotzat aipatua delako.

Beraz, on da Frai Bartolomez idatzi izan den guztia agertzea, eta halaxe egingo dugu, bai haren nortasun historiko eta literarioari eta bai haren idazkiez, bide batez aldiakari batzuetan egin izan den ekoizpen honen historia txikia eginez.

¹² Markinako Karmeldarren bibliotekan laugarren argitalpena (Bartzelona, 1778), eta bosgarrena ere badaude (Bartzelona, 1778)...

¹³ Markinako Karmeldarren biblioteka, 2-MG / 22-d).

¹⁴ Fr. Luis de Granada, *Los seis libros dela rhetorica eclesiastica*... 293-301. or.

a. Zerrenda bibliografikoa

— Bartolomeri buruz.

- AKESOLO, LINO, *Aita Bartolome Santa Teresa: Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurritzko gatz-ozpinduba (Azkenengo edizioa)*, Karmel 1987-2, 49-52. (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1^a.t., 350-354).
- AKESOLO, LINO, *Fr. Bartolomé de Santa Teresa y su Plauto Vascongado*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 357-376). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1^a.t., 323-338).
- AKESOLO, LINO, *Miscelanea de noticias sobre el P. Bartolomé de Santa Teresa*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 26 (1970) 321-327). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1^a.t., 339-345).
- AKESOLO, LINO, *Nuevos datos sobre Fr. Bartolomé de Santa Teresa (1768-1835)*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 40 (1984) 425-429). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1^a.t., 346-349).
- ALTUNA, PATXI, *Fray Bartolomez puntu batzuk*, Euskera (1981) 367-377.
- ALTZIBAR, Xabier, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*, Bilbao, 1992, 259-285.
- ARRINDA ALBISU, Donato, *Un fraile de Lazcano, "Plauto bascongado"*, Lazkao (1987) 26-28; Lazkao (1988) 16-17; Lazkao (1989) 32-34.
- ARTEAGA, LON, *Euskal aditza Frai Bartolome'gan (1768-1835)*, Karmel 1978-3, 65-74; 1978-4, 59-68; 1979-1, 65-74; 1979-2, 71-80.
- ARTEAGA, LON, *Frai Bartolo jantzi barriagaz?*, Karmel 1971-1, 49-52.
- BARAIAZARRA, LUIS, *Bakoitzari berea, Jainkoaren legea. Frai Bartolomeren oboretan*, Karmel 1989-1, 14-25.
- BARAIAZARRA, LUIS, *Karmeldar idazle biren urratsak*, Karmel 1981-4, 25-34.
- BARAIAZARRA, LUIS, *Markina-Xemeingo euskara aztertzen*, Euskera 31 (1986-1) 143-169.
- BARAIAZARRA, LUIS, *Orma urtetsuetatik kontu zabarrak*, Karmel 1982-1, 75-84.
- BARAIAZARRA, LUIS, *Frai Bartolo*, Karmel 1970-1, 34-36.
- DODGSON, E.S., *"The Biscayan verb. An analytical index to the 431 forms of the Biscayan verb, found in the volumen entitled Euskal Errijetako Olgeeta, ta Dantzeen Neurritzko-Gatz-ozpinduba; or The Moderate Salted Vinegar for the Danses and Amusements of Baskland, by Friar Bartolome Santa Teresa, of the Bare-footed Carmelites of Markina, in Biscaya, published at Pamplona, Navarra, in 1816.[...]"*, The Celtic Review, 1915, X, 55-62, 169-174, 227-242.
- ERZIBENGOA, Joshe - EZKLAGA, PATXI, *Euskal literatura III,* (XIX)*, Bilbao, 1974, 59-65.
- ESTORNES ZUBIZABRETA, Idoia, *Fray Bartolomé de Santa Teresa /1768-1835)*, in: *Literatura, I*, (Enciclopedia general del País Vasco), San Sebastián, 1969, 299-302.

- ETXEARRIA, A. - ETXEARRIA, J. - ETXEARRIA, J.A. - GOIRIA, M. - KORTAZAR, J.M., *Euskal literatura urratzen. Literatura III*, Bilbao, 1986, 75-79.
- ETXENAGUSIA, Karmelo, *Euskal Idazleen Lorategia itz lauz*, Donostia, 1969, 112-119.
- ETXENAGUSIA, K. - KORTAZAR J. - ETXEARRIA, A., *Euskal idazleak bizkaieraz. Antologia, testu azterketak, ariketak*, Bilbao, 1980, 93-97.
- IRIGOIYEN, A., *Aita Frai Bartolome eta bere oigeta ta dantzez egin berri edizioa*, in: *De Re Philologica Linguae Vasconicae*, II, Bilbao, 1987, 239-241.
- IRIGOIYEN, A., *Aita Frai Bartolome II*, in: *De Re Philologica Linguae Vasconicae*, II, Bilbao, 1987, 243-245.
- JUAN JOSE DE LA INMACULADA, *El Desierto de la Provincia de San Joaquín*, Vitoria, 1956, 172-175.
- LAKARRA, J.A. - URGEL, B., *Plauto Bascongadorez eztabaida: testu bilduma*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 520-529. (Ik.-ref. Altzibar, p.282). TESTUA...
- MITXELENA, Luis, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, 1960, 111-112.
- MUJIKA, L.M., *"Euscal -errijetaco olgueta..." obraren azterketa fonetikoa*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XVII (1983) 215-262.
- OMAETXEVARRIA, Ignacio, *Fr. Bartolome, 1768-1835*, in: *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, Zarautz, 1959, 296-300.
- ONAINDIA, Santi, *Aita Frai Bartolome Euskal-idazlea*, Eusko-Gogoa 6 (1955) 87-90.
- ONAINDIA, Santi, *Euskal Literatura*, Donostia, 2.t., 1973, 44-59.
- REMENTERIA IBARLUCEA, Jose Maria, *Aita Frai Bartolomeren "Ikasiketzunak"*, Madrid, 1971, XL - 158 orri. (Instituto Superior de pastoral, Departamento de Catequética). Argitaratu gabeko tesina.
- SILVERIO DE SANTA TERESA, *Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América*. 12. t., (Burgos, 1944) 857-860.
- URGEL, B., *Frai Bartolomeren biztegi azterketak: L.M. Mujikaren "Euscal Errijetaco Olgueta... obraren azterketa fonetikoa" ren inguruan*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XX-3 (1986) 857-866. (ik. referentzia: Altzibar, p.279, 663)
- URKIZA, Julen, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 417-421, 752-771
- URKIZA, Julen, *P. Juan Vicente: escritor euskérico y predicador*, MC 102 (1994) 463-509 (ik 489-491.orr.).
- URKIZA, Julen - Uribarren, Patxi, *Frai Bartolomeren Euscal-errietako olgueta... liburuen argitaraldien nondik norakoa*, Karmel 1998-2, 91-101.
- URRUTIA, Andres, *Philotea dantzari eta Frai Bartolome euskaralari: obar la-burra*, Karmel 1998-4, 3-16.
- VILLASANTE, Luis, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao, 1961, 229-233.
- Z[ABALA?], E., *Bartolome Santa Teresa (1768-1836). 150 urte bil zenetik*, Lazkao (1986) 11-12.

- ZARATE, Mikel, *Bizkaito euskal idalzeak*, Bilbo, 1970, 71-78.
- ZUBIKARAI, Augustin, "Frai Bartolome Santa Teresa: Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba". *Zenbait gauzen azterketa*, Karmel 1988-4, 19-28.
- ZUBIKARAI, Augustin - Fernandez Eiguren, Juan, *Etxebarria*, Bilbao, 1989, 119-122.

—Bartolomeren idazlanen bibliografia.

- Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba...*, Iruñea, 1816, 209 orr.
- Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba...*, Iruñea, 1816, 209 orr. (Donostia, 1978, faksimil argitalpena).
- Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba...*, Iruña, 1904 (1914), 218 orr. (Edición de Dodgson) (con anotación de A. Campion).
- Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba...*, Bilbao, 1986, 197 orr. (Edizio kritikoa: Luis Maria Mujika). (Colección Euskararen lekukoak-12).
- Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba (1816)*. Bilbao (Universidad de Deusto), 1987. (Edizio kritikoa: P.Altuna), 126 orr.
- Jaungoicoaren amar agutndubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac...* Iruñea, 1816, X - 278 -32 orr.
- Jaungoicoaren amar agutndubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac...* Iruñea, 1817, IV - 301 orr.
- Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac...* Iruñea, 1918, VI - 376 orr.
- Juan Jose MOGUEL, *Plauto bascongado o El bascuence de Plauto en su comedia Poenulo.....* [Jekua], 1828, 125 orr.
- Anti-Plauto poliglota o Defensa de Plauto bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua basca de Mr. Lécluse*, [Santander ??], 1829.
- J.A. LAKARRA - B. URGEL, *Plauto Bascongadoreen eztabaida: testu bilduma*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 520-529.(...? testua?), ik. 479-539.
- Apuntaciones...*, in: J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991): Historia eta agiriak*, Larrea - Zornotza, 1992, 752-768.
- (*Aita Frai Bartolome Santa Teresa, Madariaga Garate'ren / Idazlanak / (1768-1835) / GERTATZAILLE: ARTEAGA TAR LON, K.O.*) Markina, 1972; 452 or., eskuizkribua)

II. ERDARAZKO IDAZLANAK

Frai Bartolomeren beste testu interesgarri batzuk ere, gaztelaniaz idatziak, ezagunak zaizkigu. Funtsean hizkuntz iruzki-

nak, gutunak, txosten eta kontaketak dira, baina badira zenbait testu ofizial ere... Hauetarik asko galduak dira, baina beste asko gorde izan dira; batzuk argitaratu ere egin dira, Frai Bartolomereren asmoetan horrelako xederik ez bazen ere.

Egoki eta beharrezko iritzi diogu honelako idazki batzuk ere argitaratzeari, Frai Bartolomereren nortasun eta kultura ageriarazteko. Honela, lagungarri gerta daitezke testu hauek Bartolome bere osotasunean, idazle eta Ordenako gobernu-gizon gisa, ezagutzeko...

1) *Plauto bascongado* (1828)

Bera bizi zela argitaratutako gaztelaniazko bi idazki edo liburuxka ditugu, haren asmoa argitaratzea izan ez bazen ere. Bien edukia Frai Bartolomek Joan Jose Mogeli egindako gutunak dira, honek argitara eman zituelarik... Lehenengoauxe da:

"Plauto bascongado / ó el bascuence de Plauto / en su comedia Poenulo / acto 5.º escena 1.ª ... / Y / La impugnación del Manual de la / lengua vasca impreso en Bayona / de Francia año 1826 por M.ª / Lecluse, Profesor de las lenguas / hebrea, y griega... / por el presbítero D. Juan José / Moguel / — / con las licencias necesarias. / Año de 1828.", 125 orr., 14'5 x 10 cm

*Plauto bascongadore*n testua berriro argitaratu dute oraintsu Joseba Lakarra eta Blanka Urgelek: *Plauto Bascongadore*n eztabaida: testu bilduma, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 494-519. Argitaratzaileek, gainera, bete-betean asmatu dute, haren inguruko testuekin batera argitaratzean, hau da, Plautoren bertso ospetsuei buruzko eztabaida zela-eta idatzi ziren testuekin batera: 1. *Plauto bascongado*, 1828 (J.J.Moguel-Fr.Bartolome), 494-519. orr.; 2. *Plauto polígloto* Lecluse-rena, 1828, 531-534. orr. 3. *Carta* de J.I.Izueta a J.J. Moguel, 1829, 520-529. orr.; 4. *Anti-Plauto polígloto* Frai Bartolome-rena, 1829, 486-493. orr.

Testuaren jatorri eta hedapenak historia oso bitxi eta berezia izan dute.

Santanderren Frantziako kontsul zen Luis Frantzisko Graslin hainbat urtetan ari zen *Poemilusen* bosgarren ekitaldiko lehen agerraldian datozen hamar bertso misterioitsuak argitu nahian.

Hainbat pertsona jakintsuren erantzun ugari jaso arren, ez zuen haietariko batek ere asetzen... Halako batean, adiskide baten bitartez, Frai Bartolomerekin harremanetan jarri zen. Honek ezin izan zion mesede hori ukatu, eta bere iritzia igorri zion, euskararen bidez Plautoren bertso misterioitsuen korapiloa askatzen saiatuz.

Dirudienez, Graslin-en gogokoa izan zen, inprimatu egin zuen eta. Karmeldarraren interpretazioa ezaguna zen gai horretaz interesa zuten Euskal Herriko pertsonen artean.

Tolosan Iparraldeko euskaldun talde bat bildu zen Frai Bartolomeren lana aztertzeko.... Lechuse jaunak 1826.ean argitaratutako bere Euskal Gramatikan aipatzen du.

Orduan Joan Jose Mogel, Karmeldarraren ikasle eta adiskidea, sartzen da auzi horretan. Plautoren bertsoen eztabaidaren nondik norakoa ongi zekien, eta Frai Bartolomeregana jotzen du, hau Santanderren zela, gai horretaz galdera asko eginez... Eta Frai Bartolomek lau gutun luzetan ematen dio bere iritzia: 1827-VI-17, 1827-VII-12, 1827-VIII-10, 1827-VIII-30.

Ez zuen nahi Frai Bartolomek Joan Jose Mogelek gutun hauek argitaratu zitzaizkion, lehenik "zirriborro" edo ohar xumeak baizik ez zirelako..., eta bigarrenik gai honetaz Graslin-i eman zizkiolako idatziriko paper batzuk, honek argitaratzeko asmoa zuelarik..., baina bere adiskideak ekin eta ekin egiten zion eta, azkenean amore eman zuen Karmeldarrak.

Frai Bartolomeren eskuizkribu hauen historia laburraz hauxe esan genezake: 1. Karmeldarraren eduki txikiko paperak ziren lehenengotan, Graslin-ek argitaratu zituenak; bai eskuizkribua eta bai argitaratutakoa galduak dira. 2. Paper gehiago eta eduki

2 *Anti-Plauto poligloto* (1829)

Karmeldar idazle klasikoa bizi zela argitaratu zen gaztelaniazko bigarren liburuxka ondorengo hau zen:

"*Anti-Plauto poligloto, / ó / defensa de Plauto / bascongado, / Y / de la impugnacion del / Manual de la lengua / basca de M.^r Léclluse. / — / Santander 1829*". 29 orr., 14'5 x 10 cm

Liburuxka hau ere Joan Jose Mogelek argitaratu zuen; oraingoan ez du bere izenik jartzen, baina ezta Frai Bartolomeretik ere...

Eskuizkribuaren historia eta haren argitalpena.

Bere adiskide Joan Jose Mogeli aditzera eman zion ez zitzala argitara bere zirrimarrak ("que no diera a la prensa mis borrones"). Beldur zen eta geroko gertaerek zuzen zebilela erakutsi zuten. *Plauto bascongado* delakoak hautsa ederki astindu zuen haren "aurkakoen" artean, Lecluse eta abarren artean... Erantzunak han eta hemen sortu ziren: Lecluse-n *Plauto poligloto* 1828.ean, eta J.I.Iztueta-ren gutuna J.J. Mogel-i,

¹⁵ Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 357-376). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1^a.t., 323-338).

¹⁶ *Plauto Bascongadoaren eztabaida: testu bilduma*, Anuario del Seminario Julio de Urquijo XXII-2 (1988) 479-486.

1829.ean... Orain, J.J.Mogelen eskariz, ihardespena emateko-tan da karmeldarra...

Frai Bartolomereren eskuizkribua ez da guregana iritsi, baina bai 1929. urtean Santanderren argitaratutako testua.

Eztabaidaren edukiari buruz, *Plauto bascongadori* buruz, aipaturiko bi idazlanetara jo beharko genuke: Lino Akesolok eta J. A. Lakarra - B. Urgel-ek egindako idazlanetara..

3) *Apuntaciones... 1815 (1992)*

Frai Bartolomereren idazki honetaz, haren eskuizkribuak gorde izanaren zoriona dugu eta baita 1992.ean argitaratu izanaren zoriona ere.

Eskuizkribu autografoak (31 x 21 cm) 10 plegu hartzen ditu, hau da, 20 orri, hari zuriz josiak, hasieran orri zuri bat gehitu zaio, eta azala paper urdinezkoa da, bertan eskuizkribuaren data, gordetzen den artxiboaren katalogo-zenbakia eta izenburua agertzen direla.

20 orrietatik 18 lehenenak daude idatzirik; eskuizkribuak askoz ere geroago ezarritako

Idatzitako lehen orrian, eta orrialde-zenbakirik gabe, izenburu autografoa dator, baina letra larriz idatzia:

"Apuntaciones de lo ocurrido en el / Combento de los Carm^{tas} Desc^{zos} de la / Villa de Marquina desde el año / 1808. hasta el de 1815". Eta orrian zehar batetik bestera dauden bi lerro paraleloen ondoren, beste batek (Frai Frantzisko Jainkoaren Amarena, prioreak) hau idatzi zuen: "La copia de estas apuntaciones, firmada por el P. Predicador Fr. Bartolomé / de S^{ta} Teresa se embió á N.R.P.Provincial el 16 de Noviembre de / 1815". Horren ondoren Frai Bartolomereren hiru lerro autografo datoz, eskuizkribu honetako edukiaren gai ezberdinei dagozkienak: "Suspension de la obra del pajar: Guardia de la / sanidad en la porteria: Pretension de la colo / cacion del Relox en la torre". Eta hurrengo lerroan hauxe jartzen du letra larriz:

"Numero Unico". Beherago, Markinako Karmengo Komentuko zigilu-marka dator; eta behe-behean honako ohar hau jarri zuen norbaitek: "Tien[e] 16 folios".

Kontaktetan zehar, Frai bartolomek, ezkerreko ertzean jar-tzen ditu barruan datozen gaiak. Ezkuizkribuan bi pertsonak egindako zuzenketak ageri dira: bata, bere garaikoa da (Frai Frantzisko Jainkoaren Amarena), eta bestea, askoz ere beran-duagokoa, hezetasunaren eraginez ilundurik dauden goiko le-rrroak berridatzi nahi izan zituen.

Frai Bartolomeren testu honen kopia original bat ere bada, Burgosko "Archivo Silveriano" delakoan gordetzen dena. Idatzitako 14 orrialde dira... Kopia honek egilearen sinadura autografoa dakar: "Fr. Bartolome de S^{ta} Teresa", bai kontaketa-ren amaieran eta bai amaierako 10 lerroen ondoren ere, egilea gertakari horien lekuko dela ziurtatuz.

Bidezkoa zen komentu bakoitzak bere nagusiei frantseste-an¹⁷ gertaturikoen txostena edo kontaketa bidaltzea, komentu askok lau urteko esklaustrazioa jasan baitzuten, hauen artean Markinakoak. Berri emateko agindua Ordenako Aita Jeneralarengandik zetorren, Frai Bartolomek bere kontaktetaren amaieran adierazten duenez.

Hain zuzen ere, agindu hori betetzearren, Frai Bartolomeren kontaketa honen kopia, Markinako Karmeldarren prioreak, Frai Frantzisko Jainkoaren Amarenak egina eta Frai Bartolomek benetakotua, A. Probintzialari igorri zitzaion 1815eko azaroaren 16an, Frai Bartolomeren eskuizkribuaren lehen orrialdean irakur daitekeenez.

Oraintsu arte testu hau argitara gabe¹⁸ zegoen; orain dela zazpi urte J. Urkizak argitaratu zuen-eta (*Karmeldarrak*

¹⁷ Irakurleak aipatutako A. Silverio Santa Teresarenaren XII. liburukian aurki-tu ahal izango ditu kontaketa ugari hauen albisteak.

¹⁸ Hala ere noizbehinka aipatua eta erabilia izan da, esaterako, A. Silverio Santa Teresarena bere *Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América*, t. XII, Burgos, 1944, 857-860.

Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak, Larrea - Zornotza, 1992, 752-768).

4) Gutunak, txostenak, idazkiak...

Frai Bartolomeren gaztelaniazko idazkien artean, jadanik argitaratuak diren bi liburuxka eta frantsesez garaiko gertakari buruzko txostenaren ondoren, idazki labur batzuei buruz hitz egitea dagokigu orain, esaterako, txosten, oroit-idazki, gutun eta abarri buruz. Idazki labur hauek argitaratu gabe egon dira gaur arte, eta egoki eta bidezko dirudi argitaratzea, Frai Bartolomeren jarduera eta nortasuna hobeki ezagutuak izan daitezten. Bestalde, ez dugu ahaztu behar hauetariko gehienak haren priore kargua zela bide idatzitako idazki eta gutunak direla; hau da, ia beti arazoren bat konpontzea edo korapiloak askatzea dute xede...

Baina irakurleari oharraraztea komeni da era honetako idazki ugarietatik eta orobat bere-bereak zituenetik ere, parte txiki bat baizik ez dela gelditzen; bereziki gutunak dira gordetzen direnak...

5) Bartolomeren ofiziozko beste idazki autografoak.

Orain arte, berak edo geroago argitaratutako Frai Bartolomeren testuak, eta lehen aldiz liburu honetan argitaratzen direnak aztertu ditugu: *Euscal-errietako olgüeta...*, *Icasiqüzunac...*, kontakizunak, txostenak, gutunak..., etab.

Hala ere oso ugari dira liburu honetan argitaratzen ez ditugun Frai Bartolomeren orrialde autografoak; horietatik batzuk gutxi ezagutzen direnak dira eta beste batzuk batere ezagutzen ez direnak. 400 orrialdetik gora dira hauek, ia guztiak autografoak, batzuk hark sinatuak soilik, eta nolabaiteko interesa dutenak.

Gaztelaniazko testuak dira; Ordena barruan hark izan zuen karguarekin zerikusia dutenak; hau da, priore, Probintzialaren aholkulari, nobizioen maisu, Etxebarriko udaleko idazkari ez-

ofizial izatearekin zerikusia duten testuak. Gehienak, beraz, aktak, kontuak eta antzekoak dira; hots, ofiziozko testu erlijiosoak (Ordenakoak) nahiz zibilak...

Testu hauetatik (gehienak osorik autografoak), haren jarduera pertsonala nolakoa izan zen ateratzen dugu hainbat komunitate erlijioso nahiz zibiletan...

Julen Urkiza